

**Ikastaroak**  
**Itziarren**  
2022/23



## A U R K I B I D E A

- 4.- **Hitzaurrea**
- 6.- **Frantsesa**
- 7.- **Ingelesa**
- 8.- **Errefortzu akademia** BERRIA
- 9.- **Euskal dantzak**
- 10.- **Trikitixa**
- 11.- **Panderoa**
- 12.- **Eskulanak eta zaharberritzea**
- 13.- **Egur tailla**
- 14.- **Puntua**
- 15.- **Joskintza**
- 16.- **Senti dantza umeentzat**
- 17.- **Yoga**
- 17.- **Capoeira** BERRIA
- 19.- **Hipopresiboak**
- 20.- **Stretching balance**
- 21.- **Step fitness**
- 22.- **Egokitzapen fisikoa**
- 23.- **Gimnasia funtzionala** BERRIA
- 23.- **Entrenatzaile pertsonala**
- 24.- **Baldintza orokorrak**
- 26.- **Ikastaroetako irakasleak 2022/23**

# Ikasturte berria

Zazpi urte eta erdi igaro dira dagoeneko Itziarko Auzo Udala eratu zenetik. Denbora tarte honetan antolaketa berrira pixkanaka egokituz joan gara, eta behin hasierako zailtasunak gaindituta, azken urteotan hainbat aurrerakuntza egin ahal izan ditugu. Horien adierazle dira gauzatutako egitasmo eta hitzarmenak. Baina proiektu berriak lantzearekin bat, lehendik genituen jarduerak babestu eta sustatzea izan da auzo udalaren zeregina.

Horrela, kultur egitaraua eta aisialdi eskaintza izan dira bereizgarri, herri txikietan halako dinamikek duten aparteko garrantzia kontuan hartuta. Burugorri eraikina udalak bereganatu zuenetik, bertan kokatu dira aisialdi, ikastaro eta kultur ekintza gehienak, lehendik herrian sakabanatuta zeuden ohiturak bateratu eta bestelako proposamenak osatuz. Eginkizun horretan sortutako Burugorri Martxan ekimenak antolaketa eta parte-hartze eredu herritarrak jorratu ditu, Itziarko errealitatean aurrerapauso nabarmena bilakatuz.

Hortik etorri da azken urteotako dinamizazioa. Ehunka herritarrek parte hartu izan du eskaintza zabalari erantzunez, urtetik urtera jarduera egonkortuz. Ikasi eta ezagutzen dugun hori aktiboki partekatzeak berezko balioa du, jakintza librearen transmisioa gero eta urunduago dugun munduan. Mugimenduaren eraginez herritarren topagune bilakatu dira jarduera horiek Itziarren, kalebarrena suspertu eta pertsonen arteko harremanak trinkotuz.

Horretarako, baliabide publikoak gehitu ditu Itziarko Auzo Udalak, ahal den neurrian baldintzak hobetuz. Lehendik datorkiguna finkatu eta eskaintzari eustea izan da helburua aurten ere, aurrera egin ahala urrats berriak eman daitezkeelakoan. Auzo udalaren erronka da oinarri administratiboarekiko aritzea eta era berean funtzionamendu herritarra bermatzea.

Ikastaroen eskaintza ugalduz joan den heinean, eta ditugun azpiegituren behin-behineko erabilerak kokatuz, dagoeneko txiki geratua da Burugorri eraikina. Horrela, zenbait aktibitatek beste leku batzuetan izan dute egoitza. Erabilera hauek finkatu daitezten, Apaizetxearen ekialdeko partea (beste erdia eskolak hartzen du egun) alokatu eta modu erregulatuan baliatu ahal izateko hitzarmena sinatu du Itziarko Auzo Udalak gotzaitegiarekin.

Pandemia garaiak ekarri digun ziurgabetasun egoerak lehenetasunak aldarazi dizkigu. Hainbat plangintza atzeratu eta zaintza erdigunean jartzera behartu gaitu. Besteak beste, ohartarazi gaitu jendarte gisa zer zaigun funtsezko. Guztion neurriko kultura eta aisialdiaren alde egiteak bizikidetza babestu eta zailtasunei aurre egiten laguntzen digu, elkarrekin ikasi eta jarduteaz gain.

# Frantsesa

- 12 urtetik gorakoei eta helduei zuzenduta, bakarkako klaseak edota lau pertsonako taldeak.
- Eskola laguntza eta errefortzua.
- Enpresa mailako klaseak.
- Mintza praktika.
- Ume eta helduei zuzendua.
- DELF (A1, A2, B1 eta B2) eta DALF esaminetarako prestakuntza.

IRAKASLEA: **Michel Rocafort**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

GUTXIENEN KOPURUA: Pertsona bat.

NOIZ:

## **Astelehena:**

17:00-19:00: Helduak erdi maila

19:00-21:00: Helduak hasiberriak

## **Asteazkena:**

16:15-17:15: Helduak maila altua (klase partikularra)

17:15-18:15: Hasiberriak DBH

18:15-19:15: Hasiberriak Batxilergoa

19:30-21:00: Helduak erdi maila

NON: Apaizetxean.

KUOTA: Hilean ordu bat: 25 €

Hilean ordu eta erdi: 30 €

Hilean bi ordu: 35 €

Banakakoak: 50 €

Irakasleak kobratuko du kuota

# Ingelesa

- Ikasle zein taldearekin adostutako helburuetan oinarritutako klaseak.
- Adin guztientzat, ume, gazte eta heldu.
- Azterketa prestaketak (First, Advanced, Hizkuntza Eskolako azterketak, selektibitaterako prestaketa...).
- Eskola laguntza eta errefortzua.
- Enpresa mailako klaseak.
- Mintza praktika.

IRAKASLEAK: **Shane Curtley**  
**Edurne Echeberria**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

GUTXIENEKO KOPURUA: 4 pertsona taldeko kurtsoko.

NOIZ: **Astelehena:**

LH1 eta LH2 > 16:15 - 17:15 (Edurne)

LH5 eta LH6 > 17:15 - 18:15 (Edurne)

Batxi1 > 19:00 - 20:30 (Shane)

FIRST > 20:30 - 22:00 (Shane)

**Asteartea:**

Batxi2 > 19:00 - 20:30 (Shane)

ADVANCED > 20:30 - 22:00 (Shane)

**Asteazkena:**

A1 eta A2 > 15:00 - 16:00 (Edurne)

LH3 eta LH4 > 16:30 - 17:30 (Edurne)

DBH4 > 17:30 - 19:00 (Edurne)

DBH3 > 19:00 - 20:30 (Edurne)

**Ostirala:**

DBH1 > 16:15 - 17:45 (Edurne)

DBH2 > 17:45 - 19:15 (Edurne)

NON: Burugorri eraikineko 2. solairuan.

KUOTA: Hilean ordu bat: 25 €

Hilean ordu ta erdi: 30 €

Hilean bi ordu: 35 €

# Errefortzu akademia

- LH eta DBHko ikasleei zuzendua.
- Eskola laguntza eta errefortzua.
- Ikasle zein taldearekin adostutako helburuetan oinarritutako klaseak.
- Arlo guztien lanketa egiteko aukera: euskera, gaztelania, matematika, biologia, geologia, fisika, kimika, gizarte....
- Ahozko, idatzizko eta irakurmenezko lanketa.

IRAKASLEAK:

**Kaiet Altzibar Mantzizidor**  
**Elene Arratibel Garate**  
**Ibai Ponce Oianeder**

NON: Apaizetxeko sotoan

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

Klaseak banaka emango dira

Astean ordu bat: hilean 40 €

Astean bi ordu: hilean 80 €

Irakasle bakoitzak kobratuko ditu kuotak



# Euskal dantzak

Euskal dantzak bertako dantzak ditugu, eta euskal kulturaren parte direla esan genezake. Euskal dantzen osagaiak dira bertako ohiturak, kondairak, musika... Dela sorgin dantza, sagar dantza, arku dantza, zortzikoa, aurrekua, fandangoa... Bost urtetik gorako umeentzat eskainiko da kurtso osoko ikastaroa.

**IRAKASLEAK:**

**Ainhoa Agirregomezkorta Eizagirre**

**Ione Aranberri Iriarte**

**Aroa Mendizabal Olaizola**

**Goretti Unanue Ostolaza**

**IRAUPENA:** Irailetik ekainera.

**GUTXIENeko KOPURUA:** 8 pertsonako taldeak.

**UME ETA GAZTETXOAK**

**NOIZ:** 5-12 urte bitarteko umeak:

Ostiraletan 17:00 – 19:30

12 urtetik gorakoak:

Larunbatetan 10:00 – 12:30

**HELDUAK**

18 urtetik gorako herritarrei zuzenduriko euskal dantza ikastaroa. Dantza tradizionalak ikasteko lekua, hasiberri izan edo aurrez ezagutzarik izanda ere. Taldea osatutakoan adostuko da eguna eta ordua.

**NON:** Burugorri eraikineko ganbaran.

**KUOTA:** 10 € hilean

(irakasle bakoitzak kobratuko du)

**OHARRA:** Dantzarako oinetako egokiak parte-hartzaile bakoitzak ekarri beharko ditu.

# Trikitixa

Eskusoinu txikia edo soinu txikia botoidun akordeoi diatonikoa da. Trikiti musika jotzeko erabiltzen denean, trikitixa ere deitzen zaio. Giltzadi instrumentu hau Euskal Herrira italiar langileek ekarri zuten XIX. mendean, eta trikiti musika jotzeko erabiltzen da bereziki. Askotan panderoaz lagundurik jotzen da, batez ere erromeria giroan.

IRAKASLEAK:

**Josune Arakistain Salas**

**Naiara Mantzizidor Barinagarrementeria**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

ADINA: 7 urtetik gora.

NOIZ: Asteazken eta ostegun arratsaldeetan  
ordubeteko saioak.

NON: Apaizetxean.

KUOTA: Hilero 35 €

Irakasle bakoitzak kobratuko du kuota

OHARRA:

- Parte-hartzaile bakoitzak bere instrumentua ekarri beharko du.
- Banakako klaseak dira eta zerotik hasteko aukera dago.
- Batez ere zenbakizko metodoarekin irakasten da, solfeoa izatea ezinbestekoa ez delarik.

# Panderoa

Perkusio tresna borobil honek, larruzko mintz tenkatua du eta egurrezko uztaiarri lotua dago, eta bertan ilara baten edo bitan dozena erdi txindata kokatuak daude. Euskal Herriko erromerien bidez zabaldu zen panderoaren erabilera. Soinu txikiaren alboan ia beti panderoa aritzen da, erritmoa markatuz eta perkusioz jantziz.

Panderoa jotzen ikasteko edota hobetzeko klaseak izango dira, taldeka, trikitixaren inguruko kulturaren sakonduz, bide batez.

IRAKASLEAK:

**Josune Arakistain Salas**

**Naiara Mantzizidor Barinagarrementeria**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

ADINA: 5 urtetik gora.

GUTXIENEN KOPURUA: 4-8 pertsonako taldeak.

NOIZ: Asteazken eta ostegun arratsaldeetan  
45 minutuko saioak.

NON: Apaizetxean.

KUOTA: Hilero 20 €

Irakasle bakoitzak kobratuko du kuota

OHARRA: Parte-hartzaile bakoitzak bere instrumentua ekarri beharko du.

# Eskulanak eta zaharberritzea

Eskulanak eta zaharberritze teknikak ikasteko aukera. Batetik, pintura eta material ezberdinekin eskulanak sortzeko prozesuak; bestetik, etxeke edo ekarritako altzariak errestauratzeko moduak, apainduz, konponduz, pintatu, forratu... Etxean albora lagata dagoen edozein altzari edo adornori bizi berri bat eman nahi badiozu eta atonketarako teknika berriak ikasteko gogoz egonez gero.

**IRAKASLEA: Mari Carmen Iglesias Fernandez**

**GUTXIENeko KOPURUA:** 4 pertsona.

**IRAUPENA:** Irailetik ekainera.

**NOIZ:** Goizez edo arratsaldez asteazkenetan txandaka:  
9:00 – 12:00 edota 16:00 – 20:00

**NON:** Apaizetxeke sotoan.

**KUOTA:** 2 ordu astean: 25 € hilean.

4 ordu astean: 40 € hilean.

Auzo udalak kobratuko du kuota

**OHARRA:** Materiala hileko kuotaz aparte izango da eta norberak eramateko aukera izango da.

# Egur tailla

Egurraren ezaugarriak ezagutu eta nola landu ikasiko dugu. Higatze eta leuntze prozesu baten bidez lantzen da egurra, forma jakin bat emateko asmoz, objektu zehatz edo abstraktu bat izan daitekeena. Edozein artisau lanek bezala, alde artistikoa eta alde teknikoa ditu. Ikastaro honen bitartez, tamaina eta forma ezberdinetako egur taillak sortzen ikasteko aukera izango da. Tailla geometrikoak, figuratiboak eta diseinua landuko dira. Erabiliko den egurra egur noblea deritzona da: pagoa, haritza, gereziandoa....

**IRAKASLEA: Zuriñe Gredilla Kareaga**

**IRAUPENA:** Irailetik ekainera.

**GUTXIENeko KOPURUA:** 4 pertsona.

**NOIZ:** 2 ordu astean

Asteartetan 18.30-20.30

**NON:** Apaizetxeko sotoan.

**KUOTA:** 25 € hilean

Auzo udalak kobratuko du kuota

**OHARRAK:**

- Lan tresnak eta egur lehengaia antolakuntzak jarriko ditu, baina partaideak bereak ekar ditzake, hala nahi balu, tresna zein egur.

# Puntua

Puntua begizta-lerroak kateatuz jantziak egiteko teknika da, milaka urte dituen eta artilea edo beste hari mota bat erabiliz egiten dena, orratzekin normalean. Puntu hitza begizta horietako bakoitza izendatzeko ere erabiltzen da. Arlo hau ondo ezagutzen duen irakaslearekin, hastapenetatik hasi eta hainbat arropa edo osagarri egiteko ikastaroa da. Puntua egiten ikasteko edo trebatzeko klaseak izango dira, taldeka.

**IRAKASLEA: Fini Carbajal García**

**GUTXIENEN KOPURUA:** 4 pertsona.

**IRAUPENA:** Irailetik ekainera.

**NOIZ:** Astelehenetan 17:30 –19:30

**NON:** Burugorri eraikineko 1. solairuan.

**KUOTA:** 25 € hilean (2 ordu astean).

Auzo udalak kobratuko du kuota.

**OHARRA:** Tresnak eta materiala parte-hartzaile bakoitzak eraman beharko ditu.

# Joskintza

Joskintza bi oihal edo gehiago elkartzeko metodoa da, hari bat gurutzatuz orratz baten laguntzarekin. Bere erabilera ia unibertsala da giza populazioen artean garai paleolitikoetatik. Batez ere arropa eta etxerako artikuluak ekoizteko erabiltzen den artea da. Saio hauetan konponketak eta joste-lanak egingo dira, makinaren laguntzaz. Hainbat motatako arropa eta osagarriak egiteko aukera dago patroï desberdinak erabiliz; hala nola, poltsa, alkandora, gona...

**IRAKASLEA: Myriam Martin Arritokieta**

**IRAUPENA:** Irailetik ekainera.

**KOPURUA:** 4 pertsona gutxienez, 8 gehienez.

**NOIZ:** Asteartean 15:00 – 17:00

17:00 – 19:00

**NON:** Burugorri eraikineko 1. solairuan.

**KUOTA:** 25 € hilean (2 ordu astean).

Auzo udalak kobratuko du kuota

**OHARRA:** Josteko makinak bertan daude, baina nahi duenak berea eraman dezake. Materiala parte-hartzaile bakoitzak eraman beharko du.

# Senti dantza umeentzat

Umeekin emozioen unibertsoa eta gorputz adierazpena lantzeko tailerra. Dantza oinarri izanik, baina baita adierazpen plastikoa zein soinu eta musika ere, emozioen eta gorputzaren hizkuntzan murgilduko gara era ludiko batean. Norberak eta ingurukoek sentitzen dituzten emozioei izena jartzea lehen pausua izaten da emozio horiek azaleratu eta erregulatzeko, garapen sozio-afektiboan eragin positibo zuzena izaten duelarik. Gorputzari dagokionez, umeen identitatearen eraikuntzan, berorrek bizi dituzten sententzioek berebiziko garrantzia dute segurtasun, konfiantza eta autoestimua garapenean.

ADIN TARTEA: 6-12 urte bitarteko umeak.

IRAKASLEA: **Uxue Pascual Esnaola**

IRAUPENA: Urritik ekainera.

GUTXIENEN KOPURUA: 6 -12 pertsona bitartean.

NOIZ: Ostegun edota astelehenetan 16:30 - 18:00  
(1,5 orduko saioak)

NON: Eleiza atzeko jardinean  
(eguraldi txarra denean, gimnasia gelan).

KUOTA: 30 € hilean.

Auzo udalak kobratuko du kuota



# Yoga

Yoga hitzak “lotura, uztarketa, bategitea” esan nahi du eta Indiatik iritsi zen antzinako jakintza bat da. Geure burua eta, era berean, geure ingurunea hobeto ezagutzeko erremintak eskaintzen dizkigun disziplina bat da; ongizate fisikoa eta oreka emozionala eta mentalaz hornitzen gaituzten teknikak ditu. Barrualdea eta kanpoaldea orekatzen ditu eta gure adimenaren sormen kanalak irekitzen laguntzen digu, bizitza-jarrera positiboagoak eta zuzenagoak sortzen. Hatha Yogaren oinarriak barneratzeko arnasketak, ariketak eta erlaxazioa landuko dira ikastaro honetan.

**IRAKASLEA: Begoña Astigarraga Ibarluzea**

**IRAUPENA:** Irailetik ekainera.

**TALDEAREN KOPURUA:** 7 pertsona.

**NOIZ:** Asteartean 20:30 – 22:00

**NON:** Burugorri eraikineko ganbaran.

**KUOTA:** 20 € hilean.

Irakasleak kobratuko du kuota

# Capoeira

Capoeira Brasiletik datorren dantza eta borroka nahasten duen artea da. Honen bitartez gorputz osoa lantzen da eta koordinazioa, indarra, oreka, malgutasuna eta erritmoa hobetzen da psikomotrizitatearen bitartez. Bestalde, elkarlana, norberarekiko konfiantza eta inklusioa indartzen dira. Hau guztia musikarekin lagunduta.

IRAKASLEA: **Jon Montiel Agirre**

IRAUPENA: Urritik abendura.

GUTXIENeko KOPURUA: 5 pertsona.

NOIZ: Ostegunetan

LH4tik-DBH2ra > 17:05-18:05

Helduen klasea > 18:30 – 19:30

NON: Burugorri eraikineko 1. solairuan.

KUOTA: Ordu bat astean hilean 25€.

Irakasleak kobratuko du kuota

# Hipopresiboak

Hipopresiboak arnasketaren kontrolean oinarritzen dira, eta horrela muskulatura aktibatzen da, gerrialdea eta sabelaldea egonkortzeko. Hainbat arnasketaren ondoren, azken arnasketa bat egiten da, non aire guztia biriketarik kanporatzen den, apnea mantenduz eta saihetsak hamar bat segundoz irekiz. Errutina hori jarrera desberdinetan egiten da, onurak optimizatzeko. Hipopresiboen onuren artean daude hernien prebentzioa, pelbiseko organoen erorketa ekiditea, gernu-ihesen prebentzioa, lesioen prebentzioa eta zoru pelbikoa indartzea, besteak beste.

IRAKASLEA: **Eli Calleja Blas**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

Astean behin edo bitan.

NOIZ:	Astearteetan:	Ostegunetan:
	09:00 – 10:00	09:30 – 10:30
	14:30 – 15:30	14:30 – 15:30
	19:00 – 20:00	18:00 – 19:00
		19:00 – 20:00

NON: Burugorri eraikinaren ganbaran.

KUOTA: Irakaslea arduratuko da kuotak ezarri eta kobratzeaz.

# Stretching balance

Stretching balance yoga, luzaketak eta taichi konbinatzen dituen ariketa-programa da, modu leun baina eraginkorrean entrenatzeko, erlaxatzeko eta gorputza eta burua orekatzeko. Malgutasuna hobetzen eta giharretako tentsioak leuntzen laguntzen du. Beste kirol eta jarduera batzuetarako ere osagarri ezinhobea da, giharrek tonifikatzeko eta jarrera zuzentzeko balio baitu.

IRAKASLEA: **Eli Calleja Blas**

IRAUPENA: Irailtik ekainera.

NOIZ: Ostiraletan 09:00–10:00

NON: Burugorri eraikineko ganbaran.

KUOTA: Irakaslea arduratuko da kuotak ezarri eta kobratzeaz.

# Step fitness

Kardio eta indar ariketak txandakatzen diren ariketa saioa da, steparen laguntzaz. Stepak eskailera baten maila simulatzen du eta hori behin eta berriz igotzean datza. Gorputza tonifikatzeko dagoen ariketa fisikorik osatuena da.

IRAKASLEA: **Eli Calleja Blas**

IRAUPENA: Irailtik ekainera.

NOIZ: Astelehenetan      Astearteetan  
          9:00 – 10:00      18:00 – 19:00  
          19:00 – 20:00

NON: Burugorri eraikinaren ganbaran.

KUOTA: Irakaslea arduratuko da.

# Egokitzapen fisikoa

Egokitzapen fisikoa HIIT deiturikoen barruan kokatzen den kirol-jarduera bat da. Interbalotan egiten da lan, hau da, ariketa labur baina gogorreko aldiak eta etenaldi laburrak txandakatzen dira. Horrela, kirol-errendimendua hobetzen da, erresistentzia, indarra eta eraginkortasuna hobetuz.

IRAKASLEA: **Eli Calleja Blas**

IRAUPENA: Irailtik ekainera.

NOIZ: Asteazkenetan 9:00 – 10:00 / 19:00 – 20:00

NON: Burugorri eraikinaren ganbaran.

KUOTA: Irakaslea arduratuko da.

---

# Entrenatzaile pertsonala

# Gimnasia funtzionala

Diziplina ezberdinak erabiliz, kardio eta arnasketa ariketak txandakatuz, 60 urtetik gorako pertsoneri zuzentzen zaien ikastaroa da. Sortzen den taldearen arabera, beharretara egokituriko programazioa landuko da.

IRAKASLEA: **Eli Calleja Blas**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

NOIZ: Astelehenetan 10:00 -11:00

NON: Burugorri eraikinaren ganbaran.

GUTXIENeko KOPURUA: 5 pertsona.

KUOTA: Irakaslea arduratuko da.

Taldeko saioek asetzen ez dituzten helburu pertsonalizatuagoetarako, banakako edo talde txikietako saioak eskatzeko aukera dago. Entrenatzaile pertsonalak bezeroaren egoera fisikoa aztertzen du, eta egoera fisikoa eta osasuna hobetzeko helburuak adosten ditu bezeroarekin, entrenamendu-programa bat diseinatuz.

IRAKASLEA: **Eli Calleja Blas**

IRAUPENA: Irailetik ekainera.

NOIZ: Ikasle bakoitzarekin adostuko da.

NON: Burugorri erakiniaren ganbaran.

KUOTA: Irakaslea arduratuko da.

# Baldintza orokorrak

- Esku artean duzun ikastaro informazio hau behin-behinekoa da, taldeak osatu ahala, irakasle bakoitzak izango du beharrezko egokitzapenak egiteko ahalmena.
- Ikastaroetan matrikulatzeko argitaratutako kuotak prezio egokitan jarri dira, herritarren aukerak parekatzeko asmoz. Horretarako Itziarko Auzo Udalak diruz lagunduko ditu jarduera horiek.
- Gutxieneko kopurua zehaztu den ikastaroetan, taldea osatzen ez bada, ikastaroa bertan behera geratuko da.
- Ikastaro baten jende kopurua gaindituko balitz, izen-emate zerrenda ordenaren arabera ezarriko da lehentasuna.
- “Kuotak hilero kobratuko dira. Ingelesa, frantsesa, zaharberritzea, egur tailla, puntua, joskintza, senti dantza eta capoeira kontu korrontetik kobratuko dira. Gainontzeko ikastaroetan irakasleak kobratuko ditu kuotak. Hiru hilabeteko ikastaroak, berriz, behin kobratuko dira.
- Baja ematekotan, lehenengo hiruhilekoan egin beharko da. Behin bigarren hiruhilekoa hasita, ikasturte osoa kobratuko da.
- Matrikula egiterakoan emandako datu pertsonalak babestu egingo dira Datuen Babeserako Lege



Organikoaren baitan eta ez dute bestelako erabilerarik izango.

- Ikastaroetarako erabiliko diren eraikin guztietan Itziarko Auzo Udalak beregain hartua du erantzukizun zibila.
- Covid-19ak sortutako egoera dela eta, une bakoitzean indarrean diren osasun neurriak beteko dira, babes neurriak, distantzia eta kopuruak errespetatuz.
- Azpiegitura hobetzeko egin beharreko lanak Itziarko Auzo Udalaren gain geratuko dira, eta irakasle bakoitzak bere ikastaroa aurrera eramateko materiala izan beharko du.
- Ikastaro eskaintza ziurtatzearen lehentasunaz hartu du ardura Itziarko Auzo Udalak, horretarako baliabideak jarritz. Egoera aldakor hau gainditu ahala aztertuko da zer-nolako kudeaketa moldatu, iraunkortasuna bermatzeko.
- Eskaintza hau halabeharrez osatua da, lehendik Burugorri Martxan ekimenak egindako lanetik jaso. Herritarrek aukera dute proposamen berriak eta ekarpenak egiteko, aurrerago kontuan hartuko direnak. Horretarako tresnak jarriko dira, hala nola **ikastaroak@itziar.eus** helbidea.

# Ikastaroetako irakasleak 2022/23

**Michel Rocafort**

Jatorriz frantsesa da eta filologia ikasketak ditu. 15 urteko esperientzia dauka frantsesa eta ingelesa irakasten.

**Shane Curtley**

Jatorriz irlandarra da, ingeles literatura ikasi du, TEFL titulazioa du eta 25 urteko esperientzia du ingeles irakaskuntzan.

**Edurne Echeberria**

Ingelesa da bere ama hizkuntza, bigarren hezkuntzako irakasle masterra du eta gaur egun magisteritza ikasten dago. Ingeles irakaskuntzan 15 urteko esperientzia du eta gaztelera irakasle lanak egin ditu Ingalaterran. Batxilergoa eta Cambrigde azterketetarako klaseak eskeiniko ditu.

**Kaiet Altzibar Mantzizidor, Elene Arratibel Garate, Ibai Ponce Oianeder**

Elene eta Ibai Haur Hezkuntzako ikasketak burutzen ari diren bi ikasle itziartar dira. Jada badaramatzate bi urte errefortzu saioetan. Kaiet Industria Diseinu eta Produktu Garapeneko Ingeniqrizako ikasketak egiten ari da, eta zientzietako modalitatean espezializatuta dago. Bere ardura lirateke zientzia arloko errefortzuak.

**Ainhoa Agirregomezkorta Eizagirre, Ione Aranberri Iriarte, Aroa Mendizabal Olaizola eta Goretti Unanue Ostolaza**

Azken urteetan bezala, bertako lau gaztek jarraituko dugu dantza ikastaroetako irakasle modura. Debako Gure Kai dantza taldeko eta Azpeitiko Luix Beltzaren dantzariak gara. Gure helburu nagusienak bai Euskal Herriko dantza tradizionalak eta baita berritzaileak ere erakustea dira. Hau den, guk dantzarekiko dugun pasioa herriari eta ikasleei transmitituz irakasten dugu. Animatu zaitetz zu ere!

**Josune Arakistain Salas**

Txikitatik hasi nintzen trikitixa munduan, zehazki 9 urterekin. Euskal Herriko zenbait txapelketatan parte hartzeaz gain hainbat proiektu eta ekitalditan ere izan naiz soinua jotzen. Gaur egun Huntza taldeko partaide naiz eta estatu mailan zein internazionalki kontzertuak ematen gabiltza. Horrez gain, bakarkako proiektua ere atera berri dut, SÜNE izenpean, lehenengo abestia “Sunday” delarik. Itziarren 4 urte daramatzat trikitixako eta panderoko ikastaroak ematen.

### **Naiara Mantzizidor Barinagarrementeria**

Txiki txikitatik panderoa eskutan ibiltzen nintzen lehengusinekin batera eta 9 urterekin hasi nintzen trikitixa ikasten, Jon Ostolazarekin. Geroztik, kalejiratan, txapelketetan, Sua eta Mugi panderoa taldeetan, erromerietan, trikipoteotan eta abarretan ibili naiz soinua jotzen. Azken hiru urte hauetan, trikitixa eta panderoa irakasten ere banabil.

### **Mari Carmen Iglesias Fernandez**

Llevo 30 años impartiendo clases de manualidades, de los cuales 20 años llevo en Itziar ,hacemos todo tipo de manualidades:

1. Decoración en telas.
2. Decoración en botellas.
3. Decoración en macetas, etc.
4. Restauración de muebles viejos y tratamiento de polilla.
5. Pintura a la tiza para pintar muebles,sillas, lámparas etc.
6. Dibujos en muebles y muchas cosas más.

¡¡Anímate y dale un cambio a tú casa!!!

### **Zuriñe Gredilla Kareaga**

Duela 35 urte Debako Arte Eskolara etorri nintzen. Hor hiru urteetan zehar grabatu kalkografiko espezialitatea garatu nuen eta horrekin batera egur tailan lehenengo urratsak emateko aukera izan nuen. Debatik Eibarra joan nintzen Paulino Larrañagaren estudiora eta beste hiru urte pasatu nituen. Bakarkako erakusketak, kolektiboak eta artisau azoka ugaritan parte hartu dut. Duela 20 urte, nire tailerra sortu nen Deban, “Txirbila”, eta ordutik aurrera, tallerreko lanaz gain, ikastaroak ematen ditut.

### **Fini Carbajal García**

Hola, soy Fini, tengo 59 años y he nacido en Galicia, he vivido en Alemania, Cataluña y ahora llevo 22 en Itziar. Entre mis pasiones están las manualidades, sobre todo el punto y el ganchillo. Soy autodidacta, y llevo 4 años dando cursillos de punto y de ganchillo en Itziar.

### **Myriam Martin Arritokieta**

Duela hiru urte hasi nintzen jostintzako klaseak ematen, eta jostean gain terapia ere egiten dugu bertan. Txikitatik izan dut oso gustoko jostea, eta neure kasatan betidanik josi izan dut. M jantzidenda ireki nuenean, hiru urteetan zehar, Donostira joaten nintzen patronajea ikastera. Denda itxi nuenean, desfile bat egitera ausartu

nintzen nik sortutako soinekoekin. Gero beste bi etorri ziren. Eta proposamena jaso ondoren, Itziarren hasi nintzen ikastaroa ematen.

### **Uxue Pascual Esnaola**

Psikologoa eta dantza mugimendu terapeuta da. Dantza, gorputz terapia eta Familia Konstelazio Berrien inguruko formakuntzak burutu ditu. Gorputz mugimendu eta dantzak eskeintzen dituen onuraz baliatzen da ume, heldu eta familien ongizaterako tailerrak eskeiniz.

### **Begoña Astigarraga Ibarluzea**

Oreka eta lasaitasunaren bila ari nintzela yoga bilatu nuen Debako eskolan.

Gehiago ezagutu eta sakontzeko interesa piztu zitzaidan eta Zestuan egin nuen lehendabiziko kurtsoa, 1988an yogako irakasle titulua lortuaz. Sakontzen jarraitu dut beste hainbat kurtso eginez.

27 urte daramatzat klaseak ematen, Itziartik aparte Mutriku, Azpeiti eta Aizarnazabalen aritzen naiz momento honetan. “Erantzi iezaiozu, falta duena, zure bizitzari”.

### **Jon Montiel Agirre**

Magisteritza eta gorputz hezkuntza irakaslea, capoeiran 20 urteko esperientzia dauka eta Senzala Euskadi capoeira elkarteko kidea.

### **Eli Calleja Blas**

Monitora de aerobic y step. Certificada en Body step y Body balance. Monitora de spinning y en poblaciones especiales: personas mayores y niños. Entrenadora personal. Certificada en hipopresivos en la escuela de Marcel Caufriez. Certificada en los Pressure Fitness nivel 1-2-3. Especializada en World Series. Trabajo de suelo pélvico y reeducación postural. Experiencia 24 años en el mundo del fitness. 7 años en hipopresivos. Certificada en K-stretch.





# Ikastaroen matrikula zabalik, uztailaren 18a arte

Irailaren berriz zabalduko da matrikula, baina uztailean apuntatutakoek lehentasuna izango dute.

Digitalki bete imprimakia  
**[labur.eus/ikastaroakitziar](http://labur.eus/ikastaroakitziar)**  
estekaren bitartez, eta bidali.

Edo Itziarko harrera bulegora jo  
eta bertan inprimakia bete.

informazio gehiago:

ikastaroak@itziar.eus

tel.: 943 19 92 55

Itziarko harrera bulegoa  
Mutxiarte Kalea, 8 · 20829 Itziar

Ordutegia: 8:00 – 15:00  
(10:00 – 13:00 presentziazkoa)  
(astelehenetik ostiralera)



Itziarko  
Auzo Udala

